

Nora zijoan usoa?

Euzko Gaztedi, 11. zk., 1949-04: 34.

ITZETIK ortzera gezurra dariola, ausartzu ta lerden, bere eginkizun izugarriak esaten ibiltzen ez dan eiztari edo arrantzalerik esagutzen al'dezu, irakurle?

Bizar-kentzalea berritsu, esnezalea ur garbiaren lagun, itxas-arrantzalea arro, baserritarra apustulari dan neurri berean dira ibai-arrantzalea ta eizteria gezurti-gezurtiak. Bañan oso-osorik orde; sakurrak zaunka, biorrak irrintzia, ardiak bee negartia, beliak karrazia, txoriak txiotxo alaia, zugeak txistu egiten duan bezelaxe, arrantzaleak edo eiztariak aba iriki ordurako: GEZURRA.

A, bañan, nik ezagutu nuan TXIMISTA izeneko gizon mardul ari bein edo bein entzun ba'zeniozun!!... Iguruko errietako eixtari onena, berak zionez. Arrantzan, berriz, zer esanik ez! Amorraiak atzaparra betean ateratzen zituan arkaitz zuloetatik, arrano arek! Akuriak berriz!...

– Ura uso taldea! –zion larunbat arratz batean, ardandegian bildu ziran betiko lagunei– Urrutikan ikusten nizkian, zuzen-zuzen guregana zatoztela... "Kantoi'ko Iñaxio'ri esaten ari niñuan; jarri erne, Iñaxio, uso oiek onera zatoztik, aizeak mendi-zulo ontara botako dizkik... Eta bai asmatu ere! Usoak errenkadan, barra-barra, gure muturren aurrera... PIM-PAM... da eltxuak bezela lurrera... Ogeitamar bildu giniskian bion artean! OGEITAMAR!

– Alajañena, etzerate txantxetan ibiltzen zuek!!!

– Egon adi, –zion TXIMISTAK, besten parrari jaramon aundirik egin gabe– oraindik beste bost bota giñozkian gero! Ura eguna, ura! Bañan politena azkeneko uso bakararra, etxeratzeke gertatzen ari giñala akatu genduan uso ura...

– Zer egin zuan; bere burua il da zuen zakelera erori?

– Ago ixilik –zion berriz TXIMISTA'k danen algara itotzeko abotza gogortuz, enauk txantxetan ari ta!... Uzte gabean uso bakararra aurrean... PAN! da aurreko lumak kanpora; jiratzen nauk beste aldera ta... PAN!; atzekoak kanpora...

– Ago, ago, pixka bat, TXIMISTA, nik ba'zakiat nora zijoan usoa...

– Nora?! –dio TXIMISTA'k, gogotzarrez ixixduaz.

– IGARITOKIRA!!

Erritar [Martin Ugalde]